

Martindegi - Ereñotzu: desafioa herri kiroleetan

■ Gaur, 18:00etan Oialumen ■ Gero, bertso afaria Etxeberria sagardotegian.



Ereñotzu eta Martindegiko taldeak elkarrekin, Sanantoniotarrek desafioa jokatu eta gero.

MARTINDEGI eta ereñotzuarrek gaur arratsaldean probatuko dituzte beren indarrak. Ez da, ordea, ukabilarekin mahai gainean jo eta botatako desafioa. Iazko Sanantoniotan, festa jartzeko, bi auzoak aritu ziren herri kiroleetan. Orduan, iñatzuaren alde erori zen apustua. Orain buelta etorri da.

LAU PROBA
Bi taldeek launa proba jokatu-ko dituzte: txingan (4na plaza), kontrabandoan (4 buelta Oialumeko tabernari), aizkoran (4na korte), eta lokotx biltzen (20na). Lokotxekin polemika ere piztu da. Iñatzuaren 15 nahi, lehen hala izan zirelako; martindegitarrek, berriz, 20

esaten, hasieran hala hitz egin zutelako.

BERTSO AFARIA
Martindegin urtero antolatzen dute saioa garaitsu honetan. Gaur desafio ondorengo afaritan arituko dira kantari Lizaso eta Irazu. Afaria 20:30etan, Etxeberria sagardotegian. □

ETXEBIZITZA BEHARRARI BURUZKO INKESTA

Datorren ostegunerako erantzun behar da

■ Udaltzaingoa, Kutxan edo Laboralean utzi erantzunak ■ Oraingo, 84ek erantzun dute.

UDALA herritarren etxebizitza premia aztertzen hasi da eta horretarako inkesta bat zabaldu du herrian. Zertarako azterketa? "Epe ertainera etxebizitza problema larriaren planifikazio arrazionala egiteko".

6 GALDERA
Inkesta anonimoa da eta sei galdera ditu: zeinen etxean bizi garen, nolakoa den, aldatzeko asmorik, nolakoa hartuko genukeen, ordaintzeko aukerak... □

PALETA GOMA

Lasa eta Martinez munduko onenen aurka

■ Euskal Herriko txapelketako partidua jokatu dute ■ Kirolegian, arratsaldeko 4etan.

ELI Lasa eta Amaia Martinez 30-18. Hiru munduko txapel-aurrera doaz paleta goma txapelketan. Aurreko astean: Eli Lasa, Susana Muneta Abadiñon irabazi egin zuten eta Maite Ruiz. □

Eskolarteko atletismo probak Antziolan

■ Donostialde osoko umeak izango dira ■ 7 proba dituzte ■ 10:30etan hasiko dira.

ANTZIOLAKO atletismo pistetan Donostialdeko atleta gazteen probak jokatu dira. Hernani, Astigarraga, Urnieta, Lasarte-Oria, Usurbil eta Donostiako umeak izango dira, denboraldiko hirugarren lehia-keta honetan. Bi kategoriako neska-mutilak etorriko dira: alebinak eta jubenilak. Aurreko probetan hernaniarrak fin ibili izan dira.

PROBAK
1-150 m hesiak (alebinek)
2- 200 m hesiak (infantilek)
3- Pelota jaurtiketa (alebinek)
4- Luzera -saltoa- (infantilek eta alebinek)
5- 600 m (infantilek)
6- Txabalina (infantilek)
7- 4 x 60 erreleboak (alebinek)
8- 4 x 80 erreleboak (infantilek). □

Gaur Behemendi azoka Plaza Berrin

■ Baserriko produktuak izango dira hilean behingo azoka honetan ■ Goizetik eguerdira.

TALDEAK

MARTINDEGI

LOKOTX BILTZEN

Nagore Barrenetxea
Maider Tolosa

AIZKORAN

Larra

Aitor Barrenetxea

TXINGETAN

Ander Barrenetxea
Iñaki Barrenetxea

KONTRABANDOAN

Iñigo Barrenetxea
Iñaki Barrenetxea

ENTRENATZAILEA

Kruz Mari

'IÑATZU'

LOKOTX BILTZEN

Josune Otegi
Amaia Urretxu

AIZKORAN

Mañu Arozena
Andoni Arretxe

TXINGETAN

Mikel Mazizior
Borda

KONTRABANDOAN

Tutu Ezeiza
Iñaki Otegi

ENTRENATZAILEA

Patxi Deskarga

Aizkoran eta lokotxetan aldea

■ Aizkoran Ereñotzu gehiago da; lokotx biltzen, berriz, Martindegi bizkorragoa. Ereñotzun 15 biltzera egin zuten; gaur 20ra.

■ Kontrabandoan, erreka pasa beharko dute: Astigarratik Hernanira ibiliko dira bueltaka.

■ Gorka Tolosak aurkeztuko du ekitaldia.

GOIKO LASTOLA

Urtarrilaren 19tik zabalik
SAGARDOTEGIA



GOIKO LASTOLA BASERRIA
Ereñotzu 89-Tel. 943 553 272 - HERNANI

OIALUME BILTOKIA.

EUSKAL GIROA

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
19:30etatik aurrera.

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38



Antziola-Motor

Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Marisol Yabemen argazki erakusketa ikusgai.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

HERNANI INSTITUTUA

Mekanika eta Elektrizitate-Elektronika ikastaroak, langileentzat

Ikastaroak debaldekoak dira ■ Deitu ahala gordeko dira lekuak.



Ikasle-irakasleak Karmelo Labakan (EPOn), sistema elektrikoak montatzen.

INGURUKO enpresetako langileak trebatzeko, ikastaroak antolatuta ditu Hernani Institutuak, Karmelo Labaka zentruan. Hamabi ikastaro daude aukeran; bakoitzean 10 lagunekoko taldeak osatuko dira. Ikastaroak debaldekoak dira, HOBETUZEK ordainduko baititu % 100.

HAMABI IKASTAROAK
Mekanika: CNC fresadoren programazioa, CAD-Autocad (2 ikastaro), Kalitate kontrola (2 ikastaro), Makina osagarriak, Hidraulika, eta Elektrohidraulika.

Elektrizitate-Elektronika: Instalazio domotikoen diseinua eta egitura: sistema zen-

tralizatua, Automatismo programagarriak, Antena instalazioak montatu eta mantentzea, eta CAD-elektronika.

Ikastaroak urtariletik ekainera izango dira; astelehentik ostegunera bi ordutegi ezberdinetan. Informatu edo apuntatzeko EPOtik pasa edo 943 551958 telefonora deitu. □

Hernaniko kirol taldeak urte berrian

Boleibol eta waterpoloko taldeak lehen postuan daude.

BOLEIBOLA

UPV-Hernani lider doa Euskadiko ligan 21 punturekin. Hernani KE 7garren, kategoria berean, 15 punturekin.

ERRUGBIA

Nazional mailan hernaniarrak 5garren doaz zortzitik, 6 punturekin. *Iruña* eta *Kakarraldo* daude segidan puntu berdinekin eta *Mungia* azkena 4rekin.

ESKUBALOIA

2. Nazional mailan hamar

talde daude; hernaniarrak 5garren doaz 5 puntura.

FUTBOLA

3. mailako gizonetakoak 12garren daude 23 punturekin. Aurretik *Alaves* dute 25ekin eta atzetik *Bermeo* 22rekin.

Emakumezkoen ligakoak 4garren dihoaz *Tolosatik* puntu bakarrera eta *Antoniotik* hirura.

Gorengo mailako mutilak azkena doaz Intxaurren bano puntu bat eta Hondarri-

bia baino lau gutxiagoz.

MAHAI TENISA

2. Maila Nazionalako taldea hamar talderen artean 3garren doa bigarretik puntu bakarerra. *Probintziako lehen maila*koa 5garrena da; *probintziako bigarren maila*koa 6garrena.

WATERPOLOA

Mutilen taldea lider doa Euskadiko Lehen mailan, partidurik galdu gabe. Neskak bihar hasiko dute denboraldia. □

HITZ BITAN

✓ MENDIRIZ MENDI

Mendi buelta egingo dute, bihar: Ataun, Bernoako galtzada, Intsusburu (943 m) eta Iturrimendi. Irten goizeko 08:00etan Atsegindegitik eta egun pasa izango da izena eman duten guztiakin. Norbait lo gelditzen ez bada, noski!

✓ ZINEA

'Bailame el agua' eta 'Karramarro uhartera'. Umeentzako *Karramarro uhartera* 17:00etan; helduentzat, berriz, *Bailame el agua* 19:00 eta 22:30etan. Gaur, Biterin.

✓ ODOLA EMATEA

69 odol boltsa bildu dira urtarrilean. Aurreko urteko batz bestekoaren azpitik hasi da urtarrila. Iaz, 72.5 odol boltsa bildu ziren hileko, urteko lehen asteartean baino 3.5 gehiago. Odol emale berri bakarra izan da.

✓ IRAULIO PANTTALONE BAND

Andoainen kontzertua emango dute, gaur. *Martin* delako baten historia kontatuko dute bertso musikatu bidez. Gaur, larunbata, La Salle ikastetxean ilunabarreko 20:00etan. □



Xabier Legarreta, Martien gazte denbora antzeztan.

KIROLDEGIA

Igerilekua itxita: gaur 09:00-11:00 arte; bihar 11:30ak arte

■ Gaur, larunbata, eskolarteko umeek igeriketa probak dituzte ■ Bihar, waterpoloko bi partidu izango dira.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri, 11 ☎ 943 553582
▶ Gaez: Tanco Urnieta, San Juan 36 ☎ 943 550942

IRAGARKI MERKEAK

■ Neska euskaldun bat pisu konpartitu baten bila dabil.
☎ 943-33 29 62



Laguntzaile:

HERNANIKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak



ASTEBURUKO PARTIDUAK

LARUNBATA

■ BOLEIBOLA

Euskadiko liga
Bilbon (Eskurtzen) 17:30etan
CV Rekalde - **Hernani KE**

■ ERRUGBIA

2. *Euskal Liga*
Landaren 16:15etan
Hernani - Gernika
Kadeteak. Euskal Liga
Landaren 11:30etan.
Hernani - Kakarraldo

■ ESKUBALOIA

2. *Nazionala*:
Kiroldegian 17:30etan
Hernani - Elorrio

■ FUTBOLA

Emakumezkoen Liga:

Zubipen 12:00etan

Hernani - Antoniano

Gorengo maila

Ugaldetxon 15:45etan.

Oiartzun - **Hernani**

Gazteen liga nazionala:

Zubietan 17:30etan.

Real Sociedad - **Hernani**

Gazteen Ohorezko Liga

Allurralden 17:45etan

Euskalduna-**Hernani**

Gazteen 2.Maila

Usabalen 15:30etan.

Amaroz-**Hernani**

Kadeteen Ohorezko Liga

Zubipen 16:30etan

Hernani-Añorga

Kadeteen 2.Maila

Zubipen 10:30etan.

Hernani - Azkuene

Haurren Ohorezko Liga

Herreran 10:30etan.

Sporting-**Hernani**

■ PELOTA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Kiroldegian 16:00

Paleta Goma:

Lasa-Martinez

Muneta - Ruiz

IGANDEA

■ BOLEIBOLA

Euskadiko liga

Iruñean (Uniberts.) 12:00etan

Uni. Navarra-UPV **Hernani**

■ ERRUGBIA

1.Liga Nazionala

Durango 12:00etan.

Durango - **Hernani**

Jubenilak. Euskal Liga

Durango 10:30etan.

Durango - **Hernani**

■ FUTBOLA

3.maila

Zubietan 11:30etan

Real Sociedad-**Hernani**

■ MAHAI TENISA

Gipuzkoako 1.maila:

Kiroldegian 16:00etan.

Hernani - Lasarte

■ WATERPOLOA

2. *Euskal Liga (Mutilak)*

Kiroldegian 13:00etan.

Hernani - Castellae

Euskal Liga (Neskak)

Kiroldegian 12:00etan.

Hernani - Riopico